



KUTXA Enplegatuen Elkarte	Xenda-zaletasun atala
114. zka 2. etapa GR-38	Guardia-Lagran 2016/06/4-5

Adiskide mendizaleok:

“Ardoaren eta Arrainaren Bidearen” bigarren saiakera egingo dugu, Guardia/Biasteri eta Lagran herrien artean, iazko otsailean egin gabe utzi genuena eguraldi kaxkarra zela medio.

Oraingoan Arabako Errioxatik irten eta Toloño edo Kantabriako mendi-lerroaren hesi orografikoa izango dugu aurrean; bide batez "Kanpezu-Arabako Mendialdea Kuadrilla" osatzen duten parajeak ezagutuko ditugu apur bat. La Hoya herrixkatik igaroko gara, bertan dago Euskal Autonomia Erkidegoko Brontze Aroko aztarnategirik garrantzitsuenetakoa; lehen kokalekua K.a. XV. mendekoa da, non Erdialdeko Europatik etorritako indoeuroparrak harremanetan jarri baitziren bertan zeuden kultura megalitikoekin.

K.a. IV. mendean mesetatik iritsitako zeltiberiarrek indarrez sartu eta herrixkaz jabetu ziren, maila handiagoko kultura eta garapena utziz.

Horrek garapen nabarmena ekarri zuen beraiei zegozkien berrikuntza tekniko eta ekonomikoei esker; nekazaritzaren errendimendu handia eragin zuen, eta horrek trukea bultzatu zuen, La Hoya eskualdeko merkataritza- eta antolaketa-gune garrantzitsu bihurtuz. Herrixka bertan behera utzi zuten gutxi gorabehera K.a. III. mendean, ez dakizkigun arrazoiengatik.

Gero, Zezenaren mendatera igoko gara, handik hobe zinak direlarik bi aldeetara dauden ikuspegiak. Atseginareagotzeko, esku-eskura izango dugu Peña/Cruz del Castillo (1.432 m) gailurra. Gero jaitsiera polita ipar aldetik Lagran herri txikiraino; Ardoaren eta Arrainaren Bidearen Interpretazio Gunea dago bertan.

Animo, mendizaleok, natura zain dugu eta!!!

Ibilbidea: Guardia/Biasteri-Lagran

Beharrezko denbora										4,30	
Goranzko desnibel metatua										668 metro	
Beheranzko desnibel metatua										526 metro	
Zeharretara egin beharreko distantzia										13.225 metro	
	Ingurunea	1		Orientazioa	1		Joan-etorria	1		Esfortzua	3

Irteera-lekua	Bilbo plaza (Bus galeakua 17/24) eta Pio XII.aren plaza (Bus galeakua 24/27)
Aurkezteko ordua	07:10 (Bilbo plaza) eta 07:15 (Pio XII.aren plaza)
Irteera-ordua:	07:15 (Pio XII.aren plaza)
Bazkaria	Garimotxea jatetxea.
Prezioa	30 euro

Izena emateko azken eguna: 2016-06-02ko 12:00etan

Oharra: a/Ez badago gutxieneko parte-hartzaile kopururik, irteera bertan behera geratuko da.
b/ Eguraldiaren iragarpena txarra izango balitz larunbaterako, igandean egingo litzateke ibilaldia.

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-José Ignacio Acuña

Izen-emateak egiteko: Alberto Lahuerta (656-721.208/Senderismodad@gmail.com) eta José Ignacio Acuña (943-31.02.52/joseig15@gmail.com).